



ASMOZ TA JAKITEZ

EUSKO
IKASKUNTZA

MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA

**Bernardo
Estornés
Lasa**



10

MANUEL LEKUONA Saria
Prix MANUEL LEKUONA



1992



ASMOZ TA JAKITEZ

EUSKO
IKASKUNTZA

Egilea:

Autor: Idoia Estornés Zubizarreta



Remigio Mendibururen brontzekok eskultura
Escultura en bronce de Remigio Mendiburu

ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia

Bernardo Estornés Lasa / Idoia Estornés Zubizarreta ; [itzulpena Luis Manterola]. - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 1995 .- 64 p. : il. ; 21 cm. - (Manuel Lekuona Saria = Premio Manuel Lekuona; 10) .- Texto bilingüe en euskera y castellano. - Premio Manuel Lekuona 1992

ISBN: 84-87471-93-5

1.- Estornés Lasa, Bernardo - biografía 2. Bibliografía - Estornés Lasa, Bernardo. I. Eusko Ikaskuntza II. Serie III, Tit.

012

929 Estornes Lasa, Bernardo

Hauen laguntzarekin: Arabako Diputazio Forala, Bizkaiko Diputazio Forala, Gipuzkoako Diputazio Forala, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza.

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS

Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia

ISBN: 84-87471-93-5

Depósito Legal: BI-2519-95

Fotocomposición: IKUR S.A.- Cuevas de Ekain, 3 - 1º - 48005 Bilbao

Impresión: Artes Gráficas Rontegui S.A.L.- Avda Ribera de Erandio, 4
48950 Erandio - Bizkaia

| | |
|----------------------|----|
| Ohar biografikoa | 5 |
| Semblanza Biográfica | 25 |
| Une gogoangarriak | 43 |
| Momentos memorables | 43 |
| Bibliografia | 57 |



Ohar biografikoa

Bernardo Estornés Lasaren *Memorias* oroitzapen-liburuan, «Recuerdos y andanzas de casi un siglo» azpigitulua duena, Estornés Lasatarren aitagoiaren bizialdia idatzirik geratu da, guztiz estilo pertsonalean.

Mendearren lehen hamarraldian sorturik, azkenean Gipuzkoan finkatu zen erdi mailako nafar baten ibilbidea da, funtsean beste hainbatena bezalakoa, jatorria toponimian duten deitura askok garbi salatzen dutenez. Gipuzkoa, eta Donostia bereziki, gehiegizko demografiak jotako Nafarroa baten erakargune gisa. Gipuzkoa eskumeneko Modernitate gisa, XIX. mendeko goibeldurak nekez erauzten hasia den Nafarroa batentzat.

1. ERRONKARIAR BATEN HAURTZAROA

Bernardo Estornés nafar Pirinioetako elurrez zurituriko herrixka ezkutu batean sortu zen 1907. urtean. Alfonso XIII.a da, 1902. urtez goertzik, Costa eta larogeita hemezortzigarrenekoen Espainia hartako errege. Frantzia, Dreyfus aferak eraginiko zatiketa sutsuak goia jotzen du; laikotasun erradikala muga ingurura hurbiltzen da, Baionan egin duen aurrerapena dela bide. Bizkaian, Chávarri eta Ybarratarren labe garaiak harro eraikitzen ari dira. Gizakiari dagozkion bizi baldintzak erreibindikatzeko dituzte meatzariak. *Bizkaitarrek* zeresana ematen dute Bilbo aldean, eta zerbait Donostia aldean. Aspaldi ez dela, burdinbide batek lotzen ditu bi hiriburuak. Askoz ere zalaparta handiagoa pizten dute mitin klerikalek eta antiklerikalek, bai eta errepublikarrak eta sozialistak elkarrengana hurbiltzeak, katolikoak biltzeak eta Liga Autonomista suntsitzea lortu duen Elkartearen Legeak ere (Ley del Candado deiturikoa).

Guzti horrek, jakina, badu oihartzunik Nafarroan, bereziki Joaquín Viñas jaunaren Iruñean, 1902-1907 eta 1909-1913 aldietan bertako

alkatea izan dena, Canalejasen adiskide handia (gure biografiatuaren aitak gehien miresten zuen politikaria), eta erresuma ohian ideia aurrerakoien aitzindaria dena. Berrikuntzak (ura, argia, saneamendua, komunikabideak, kapitalak, makinaria, ongarriak, laborantza intentsiboa) bazter guztietara eramateko kezka agertzen da jadanik gutxi batzuren buruan bor-bor dabilen Nafarroa hartan. Erriberan eta Lizarrako zein Tafallako eremu handietan ezer gutxi ez dutenen taldeek lurraz gozatzeko eskubideak erreibindikatzten duten Nafarroan.

Lokartua, bai, baina Modernitatearen lehen zeinuak zeharkatzen ari diren Nafarroan; apaizak funtsezkoak diren Nafarroa horretan (Flamariquek nekazaritza-kooperatibismoa sortzen du, Evangelista de Ibero kaputxinoak *Ami Vasco* argitaratzen du, erretore eta apaiz laguntzaileek kontzientziak moldatzen dituzte konfesalekueatik). Errepide bat dela medio, Erronkari haran ttipia ireki berri da Nafarroa guztira Bernardo Estornés Lasa mundura jaiotzen den unean. Kamio malkartsu batek Biarnorekin, Frantziarekin, lotzen du. Harana osatzen duten zazpi herrisketarik azkena Izaba da —gaur egun uda partean harana bisitatu duen edozein euskaldunek dakinez—. 1907an eta aurreko aldian, agian, berriak iristen ziren azkeneko txokoa izan zitekeen, baina azkenean iritsi iristen ziren.

Hala nola gutun xume hura, Guanajuatetik zetorrena, itsasoa zeharkatu eta aste askoren ondoren, Izabako Lasatarren bati iritsi zitzaiona, kontatuz nola XIX. mendeko ahaide batek bere dirutzaren parte bat utzi zion familiari, Bernardoren amaren eta izeben «dendaren» sorburua izan zena, haur haren lehen unibertso gnoseologikoa, urrutiko herrixka bateko denda (jadanik ez diren horietariko bat) izan daitekeen heinean, bertan denetatik aurki zitekeela, oihaletatik aleetaraino, pentsuak, erlojuak, laborantza tresnak, mapak, su artifizialak, jakiak, espezieak, etxeko hornidura guztia, zapatak, etab. Horiek kanpoko munduaren berri ukigarriak dira; tresnen jatorriaren berri hizkuntza desberdinetan adierazten duten etiketak eta argibideak.

Hautzaroa «denda» haren eta herriko eskolaren artean ematen du; elurte gogorrez eta bisutsez egina den negu piriniarra, haur axolagabeak eraman zituzten otsoei buruzko istorioak, elurretan galduriko gizakiez diharduten kontaketak, atsoitzak, mundua bezain zaharra diren haur jokoan artean, bertako euskararen —Erronkariko uskararen— azken porroskak, bai eskolak, bai elizak eta bai Erronkariko artzainek negu orotan Nafarroako Erribera alderako egiten

zuten laraldaketak sustraigabetua. «Bascongado» zirelakoak, XIII. mendeko Foru Nagusian jadanik herrialdean euskaldunak izendatzeko erabili zen hitzaz baliatuz, desagertuz zihoazen. Lurralde-aniztasunarekiko begirunea erakusten zuten Levante aldeko autore batzuek moldatu zenbait eskola-liburu ezagutzera ematen dira eskolan. Estornés dendariaren eskutik iristen den haur literaturak —Croce, Salgari, Verne, Calleja— zirrara eragiten du eta eskuz-esku ibiltzen da.

Baina, bakartasuna ez da erabatekoa. Etxean prentsa aurrerakoia irakurtzen da —«El Pueblo Navarro», «El Sol»—, bai eta aldizkariren batzuek hala nola «El Blanco y Negro», «La Esfera» eta apaizak politikí jorratzen dituen «España» izenburuko satirikoa, Lasatarren emakume tropak azkar desagertarazten duena. Atze oihal gisa, Vaticanok Espainiarekiko diplomazia harremanak hausten ditu, Canalejas hiltzen dute.

Gerra Handia gertakari garrantzitsua izan zen, mugaz bestaldeko auzo lagunak talde handitan etorri ziren hornia egitera eta haietako batzuek, ihes egiteko aprobeixatu eta bertan geratu ziren. Estornésen aitak, aliatu zale porrokatua, ahots ozenez irakurtzen ditu gerra-partea. Beste gertakari bat apaiz gazte baten etorrera izan zen, hornidura-kooperatiba sortu baitzuen, «denda» hura eta xehekako beste saltegi txikiren bat estuasun larritan jarri zituena. Herriko gizonetarikoa batzuek mezataria joateari utzi zioten. Hirugarren gertakaria, are garrantzitsuagoa izan zena: zaldi dilijentziaren bazterzea eta «Roncalesa» motordunaren sorrera (1914), harana eta Iruñea zein Donostiarekin harremanetan jarri zuena. Estornés-Lasa senar-emazteek Donostia bisitatu zuten eta hiriak liluraturik gertatu ziren.

2. ZARAGOZAKO EGONALDIA

1922. urtea; euforia ekonomikoa iraganik, nazioa krisi ekonomikoaurre egin beharrean dago, patronalak lansariak apaltzen dituzte eta fabrikako langileak grebak eginez erantzuten dute. Euskal eta katalan nazionalismoek, pistolerismoak eta Afrikako arazoak sorturiko kezkek politika egonkortasun eza areagotzen du; Primo de Rivera jenerala aginpideaz jabetzen da.

Urte horiek Estornésék Zaragozan emango ditu; Aragoiko unibertsitate-barrutira biltzen den beste ikasle nafar bat gehiago da,

Unibertsitate propiorik ez izanez, beste askoren artean. Gizarte tradizionalen ohizkoa zenez oraino, Mariano eta Bernardo anaiak etxeko batekin doaz, izeba batekin kasu honetan, eta Erronkariko emakume baten ostatura. Zaragozako Merkataritza Goi Eskolak erabateko aldaketa dakar: ikasketa arautuak, lagunak, bi sexuetako ikaslegoa. Kaleak mañoen eta kale saltzaileen ikuskari nabarra eskaintzen du, pasealekua, azokak, zinematografoa, hiri arrai baten bizimodua. Aurretik iritsitako taldetxoak emendatu egiten da, familiako gainerako guztiak bertaratu baitziren 1924an, Izabako denda saldu eta Aragoiko hiriburuan beste bat erosi ondoren.

Liburudenda eta liburutegien aurkikuntza miresgarria da. Sorterriko «vascuenz» horrek jakinmina sorturik, hari buruzko oharak hartzen hasia da jendearekin solasean, lehen euskal hiztegiak eta gramatikak eskuratzen ditu eta haietan murgiltzen da, gogoia asaldaturik. Halaber, klasiko nafarren —Moret, Campión, Iturralde, Olóriz, Navarro Villoslada, Sagaseta, Yanguas— ezagutza egiten du eta artxiboetan begiratzen hasten da.

Diktaduraren aurkako ikasleen mugimendurekin harremanik ez du eta Erronkari haranaren inguruko lehen saio historiografikoei ekiten die, bai Izabako oporraldietan eta bai hiriburu handian. Hogei urte dituela, bere lanen emaitza gisa, *Erronkari* izenburu daraman lehen liburua argitaratzen du, berak ordaindua, sortu zeneko haranari buruzko lehen monografia eta erosleen aldetik arrakasta handia izan zuena. Ondoren argitaratu beharrekoa ere prest zuten, *Euskal-Idazlasterra* izenekoa, Enrique Guzmánen takigrafia-metodoa euskarari aplikatua.

Urte horretan ere Eusko Ikaskuntzako ikasle-bazkide gisa ematen du izena, Zaragozako Centro Vasco-Navarro izenekoan lau probintzietako jendea biltzen zela eta, elkartearen berri izan baitzuen. Eusko Ikaskuntzak garrantzizko kanpaina egina zuen Euskal Herrirako Unibertsitatea lortzearren; 1922an «ikasle-bazkideak» maila sortzeak eta Estatuko unibertsitate-barruti guztietan egin zuen euskal ikasleen sinaduren bilketak ezagutarazia zuten euskal unibertsitari gazteen artean.

Urte haietan Nafarroako abertzale zenbaitekin harremanak izaten hasten da, bai eta 1910ean sortua zen Iruñeko «Eusko-Etxea» bisitatzen, bertan pertsona ezagunen artean adiskide onak egiten zituela, hala nola Ramón Goñi, elkarteko idazkaria, Aranzaditarrak, Urmenetatarrak, Cunchillos, Esparza. Adiskide horietako batek, Angel Irigaray, Campión zahar miretsia ezagutzeko bidea egiten du, haren

Iruñeko etxean. Bere ideiak, ordea, foruzale hutsak dira, hala Gamazadak inarrositako «nafar gertakariarekiko» benerazioan (Gamazoren aurkako sinadura-liburu bat ikusia zuen Izabako Artxiboan) nola 1917-1919ko autonomiaren aldeko mugimenduan oinarrituak, Eusko Ikaskuntza bera ere mugimendu horretatik sortua zelarik. Bitxia da, hala ere, ideologia sabindarrarekin duen lehen harreman zuzena Izaban bertan gertatu izana, Moradillo deitura zuen udako bisitari *bizkaitar* baten eskutik. Iruñean bakarrik aurki daiteke hein bateko gune abertzale bat, eta Diputazioan Manuel de Irujo bakarrik ihardun beharrean dago.

1929an, Diktadura jadanik koloka zegoela, titulua jasotzen du. Dagoeneko lanbideari ekiten ahal dio. Non ordea?

3. DONOSTIA EDO AMODIOA LEHEN BEGIRATUAN

Urte horretan berean, Estornésesek lehen aldiz bisitatzen du Donostia, Erresumako uda hiriburu eta, Miarritzekin batera, nazioarteko turismo-gune famatu hura. Hiria zeharkatzen du eta Eusko Ikaskuntzako Udako Ikastaroetara hurbiltzen da, Angel de Apraiz erakundeko idazkariak betetzeko zegoen lanpostu bat eskaintzen dio. Urte bereko abenduan erakunde agurgarri hartako Bulego Buru izendatu zuten. Zenbait hilabete beranduago Merkataritza Akademia bat ireki zuen hiriko erdialdean, haren zuzendaritza aipatu lan horrekin batera burutzen zuen, euskarak, ohizkoa ez zena, sarbidea zuelarik akademian. Hiriak, alai eta erakargarri, sorgindua zuen Estornés. Adiskide berriak, kultura ahalbide berriak eta are andregai bat ere ekarri zizkion.

Estornés gazteak ordura arte izandako harremanen artean, ezein ez zen erabakiorragorik gertatu Eusko Ikaskuntzako bazkideekin eta Liburutegiarekin izandakoa baino, izan ere euskal ikasketen inguruko jenderik hautuena biltzen zen Liburutegi hartan. Ordurako bazuen bi urte irekia zela eta obra moderno orokorrak zein orduko Europan hain modan zeuden euskal ikasketei buruzko liburu klasikoak biltzen hasia zen. Gainera, euskal egunkari eta aldizkari ia guztiak hartzen zituen Liburutegiak. Bertan, Estornésesek, besteak beste, erosketarako irizpidea ezartzen zuen eta Julio de Urquijo jaunari laguntzen zion «Revista Internacional de Estudios Vascos» (RIEV) agerkarirako orijinalak aztertuz eta prestatuz. Aldizkaria jakintsu horrek sortua zuen 1907. urtean.

Bertan lagunak egin zituen, hala nola Gregorio Mujika, «Euskal-Erria'ren Alde» eta «Euskal Eснаlea» aldizkarien sustatzailea, eta José de Ariztimuño «Aitzol», hainbat iharduera paranazionalisten eragilea, euskararen aldeko «Euskaltzaleak» besteak beste.

Orobat, euskal kulturaren beste pertsonalitate askoren ezagutza egin zuen. Esaterako, Lizardi, Orixe eta Lauaxeta olerkariak; Azkue, Eguskitza, Altube eta Olabide euskaralariak; Aranzadi, Eguren eta Barandiaran antropologoak; Aita Donostia musikari fina eta musikologoa; Bonifacio de Echegaray jurista; Ramón de Berraondo «Martín de Anguiozar» idazlea; Justo Gárate mediku jakintsua; Georges Lacombe euskaralaria; Pierre Lafitte eragile geldiezinak; Angel de Apraiz ekaitz itxuragile ordeztzina eta Elkarteko idazkaria, etab.

1930eko irailean Bergaran egin zen zen Eusko Ikaskuntzen V. Kongresuan esku hartzen du. Oinarrizko gaiak aparte (Herri Artea, eta hartaz komunikazio bat aurkezten du), ez zen Kongresu «normal» bat izan inola ere.

Ikus dezagun hori. Primo de Riverak dimisioa aurkeztua zuen urte hartako urtarrilaren 28an. Sigi-sagako irekiera-politikaren aldia dugu hau, Berenguer jeneral presidentearen agintaritzapekoa. Katalunia borborka, Euskal Herria esnatzen ari. Ekainetik, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrak, eratu gabeko euskal alderdien —karlista zatituak, abertzaleak bi adarretan, erregezaleak talde txikietan, errepublikazaleak barreiaturik eta, diktadorearekin kolaboratu ondoren, norantzarik gabeko sozialistak— sistemari aurrea harturik, autonomiaren arazoa berriro plazaratzeko premia planteatu zuen. Gai hori sorreratik beretik zegoen Elkarteari, nahiz eta azken urteetan izozturik egon begien bistako arrazoientatik.

Eztabaida horien ondorioz, Autonomia Batzorde bat eratu zen eta, Euskal Herriarentzat eska zitekeen eredu autonomikoari buruz, hainbat iritzi-sektoreri luzatu beharreko kontsulta bat burutu eta zabaldu zuten. Egindako txostena Bergarako Kongresuan kaleratu zen, errepublikazaleek eta Kataluniako ezkerreko abertzaleek Donostian lurralde hartarako estatutu-formula urratzailea itundu eta zenbait egun geroago. Eusko Ikaskuntzak Estatutu Aurreproiektu bat burutzea erabakitzen du, laster Estatutu Gernal de Estado Vasco (Euskal Estatutarako Estatutu Nagusia, EGEV) eztabaidatu hura bilakatu zena.

Estornésesek testu hori prestatzeko bilkura zailetan esku hartuko du, Batzordeko idazkari gisa, jadanik Donostiako Euzko Alderdi

Jeltzaleko kidea zela eta II. Errepublika 1931ko apirilaren 14an ezarria izanik. Harako hartan, Jose Antonio Agirre ezagutu zuen, bai eta Alkateen Mugimendua ere, gerora Lizarrako zuzenketen bidez Elkartearen Aurreproiektua galerazi zuena (Lizarrako Estatutua, 1931ko ekainaren 14a).

Udaberri mugitu baten ondoren, 1931ko ekainaren 21ean lau Aldundietako Batzorde Gestoreek Eusko Ikaskuntzaren EGEV delakoa onetsi zuten. 28an Gorte Eratzaileetarako hauteskundeak egin ziren; Coalición Católico Fuerista delakoa, Elizaren presiopean karlistek, kontserbadoreek eta EAJK osaturiko muntaia egongaitz hura garaile gertatu zen Nafarroan. Beste zenbait gairen artean, «Nafarroak onartuko duen Estatutuaren» inguru hartua zuten akordio zail hura, eta formula ireki horrek denbora batez koalizioaren protagonista ezberdinak elkarrekin bizitzea bideratu zuten.

Harrezkeroztik, estatutuaren prozesu kiribilkatua bide malkartsuetan barrena abiatu zen, egun ere polemikoak direnak. Uztailaren 13an Nafarroako Udalen Batzar jendetsua bildu zen eta azken akordioa ekonomia azteketa egokia burutu arte luzatzea erabaki zuten. Behin azterketa hori eginik, abuztuaren 10ean, guztira ziren 267 udaletatik 250 zeuden Batzarrean; Estatuto Vasco-Navarro delakoak (funtsean Eusko Ikaskuntzarena) onarpen masiboa bildu zuen. 267 udal horietatik 229k baiezkota eman zuten, hots, bertan ziren udaletako boto emaleen %95en ordezkariak. Arratsaldean, ordea, onarturiko zuzenketetariko batek, Estatutuan ahalmen polemikoak (Elizaren eta Euskal-nafar estatuaren arteko harremanak, irakaskuntzaren izaera, erlijioen araubidea, etab.) sartzen zituenak, lorturiko batasuna hondatu zuen. Nafarroako ezker guztia maniobra klerikalaren aurka altxatu zen.

Konfesiozko Estatutua onartua izateko aukera guztiak Errepublikako gobernu-betebehar batek alde batera utzirik, euskal estatutuaren prozesua batasuna galduz joan zen fase berri batean sartu zen. 1932ko ekainean, askoz ere zentralistago eta Bizkaia alderako isuria zen proiektu berri baten aurrean, nafar udalak, norabide jakinik gabe eta goganbeharturik, prozesutik at geratzea erabaki zuten.

Hala eta guztiz, sektore garrantzitsuak, abertzaleak eta beste, emaitza eztabaidagarri hura zuzendu nahiz aritu ziren ondoko hilabeteetan. Propagandak, orduan pentsatu zutenek, huts egin zuten.

Estornés Lasa anaiak ez ziren inola ere izabaz ahaztu. Guztira 1.157 kristau zituen herri hartan, 1931ko apirilean hautaturiko 9

zinegotziek dimisioa aurkeztu zuten 29. artikulua zela eta; maiatzean egin ziren aparteko hauteskundeen ondorioz, «eskuineko» 6 ordezkari eta 3 errepublikazale sartu ziren Udalean. Estatutuaren inguruko Batzarretan ia ez zuten ezertan esku hartu; «ezein Estatuturi ez» izan bide zen haien botoa, baina estatuturen bat izatekotan, tradizioz liberala zen haran bateko hurrei zegokienez, laikoa nahiago zuten, hau da, konkordatuaren zuzenkenta pozoindurik gabekoa. Nolanahi ere, EAJk zelula bat osatu zuen herrian bi maistekin eta Mariano, Estornés anaietariko batekin. Zelula horrek harreman estuak zituen Bernardo Estornés eta Napar Buru Batzarekin eta, 1932ko urriaren 2an, lehen mitin nazionalista antolatu zuen, Manuel Irujo, Mercedes Kareaga, Jose Antonio Agirre eta Ariztimuño «Aitzol» bertan izan zirelarik. Mitin hura eztabaidatua izan zen eta aurkako iritzia harrotu zituen, eta oraindik badago haranean mitin hura gogoan duenik. Bestalde, gure biografiatuak Alderdiaren ekintzetan zuen partaidetza aski neurtua izan zen, zuzenki politikoak ziren ekintzez baino gehiago bere izaerari askoz egokiagoak zitzaizkion kultura arazoez arduratu zelarik.

Iharduera horietariko bat eskola liburua izan zen. 1931n berpizten ari zen ikastolen mugimenduak aurkitzen zuen arazo nagusietariko bat euskarazko eskola-testuen eskasia zen. Bazuen bost urte López Mendizabalen *Xabiertxo* agortu zela. Estornésesek, gaztetxo zenetik pedagogia eta publizitaterako jaidura erakutsia baitzuen, *Sabin euskalduna* testua ondu zuen eta, Agustín Zumalabek euskaratu eta «Txiki» eta Santos Echeberriak irudizaturik, arrakasta handia izan zuen.

Beste eskasietarik bat testu sintetiko baten gabezia zen, eskola-premiei egokituriko Euskal Historiari buruzko Eskuliburu bat alegia. 1918an sortu zenetik, Eusko Ikaskuntzak behin eta berriro ziharduen gai horretaz. Aurretik monografiarik ez izateak saio guztiak oztopatzen zituen; erakundeak egoera hori sariak eratuz konpondu nahi izan zuen, baina banatu gabe geratu ziren. Gero, Bonifacio de Echegarayren gain utzi zuen liburua egiteko ardura, Enciclopedia Espasa-rako egina zuen *Vasconia* artikuluan oinarritua. Atalak luzatuz eta luzatuz zihoazen...

Alabaina, Eusko Ikaskuntzako bi bazkidek, nafarrak biak, zereginari ekitea erabaki zuten. Horietariko bat Bernardino de Estella izan zen, 1931ko amaieran bere *Historia Vasca* Bilbon argitaratu

zuen. Besteak, Bernardo Estornés, 1933ko¹ hasieran Zarautzen bere *Historia del País Vasco*, irudiz eta mapaz horniturik argitaratu zuen. Bi obra horiek, abertzale izaera handikoak biak, abertzalegoak espero zuen produktua ziren. Puntu honetaz gero, Elko zuzendaritzakoek historia horren haurrentzako bertsioa egin zezan agindu zioten Estornési eta honek hala egin zuen, itzulpena Andres Arcelusen gain utzirik.

Salmenten arrakastak argitalpen alorra zabaltzen dio Estornési. Haren iharduera emendatu egiten da. 1933-1934 bitartean «Beñat Idaztiak» argialetxea sortzen du, bai eta «Colección Zabalkundea» izeneko bilduma, 2.000 harpidedun baino gehiagokoa berau, garai hartan benetako marka izan zena. Zabalkundeko Aholkulari Batzordea Angel Irigaray, Jose de Ariztimuño, P. Alzo eta Jose Migel Barandiaranek osatu zuten. Filosofia eta Letretan lizentziatua den Mariano anaiak zeregin horretan laguntzen du. Gehiegizko lanek —Eusko Ikaskuntza, argialetxea, Merkataritza Akademia, idazkiak eta ikerketak— hilabeteko atsedenaldira (1934ko uda) hartzera behartzen dute; abagune hura Agustin Zumalabe gaztea Eln sartzeko aprobeztatzen du. Geroxeago, Zumalaberen gain utziko zuen Elko lanaren parte bat, eta Jose anaiaren gain Akademiarena.

1935ean, argitalpen eta idazketa zereginei bete-betean ekitea erabakitzen du. Bere artikuluak egunkari eta aldizkarietan agertzen dira. Liburuak ere bai: 1935ean *Historia Vasca*. *Euskal Edestia* eta *Indumentaria Vasca* argitaratu zituen, irudi anitzez hornituak, «Colección Zabalkunde» hartan.

Bilduma horretan argitaraturiko gainerako tituluak honako hauek izan ziren: Campiónen «Blancos y Negros» (1934); Barandiaranen «El hombre primitivo en el País Vasco» (1934); Campiónen «Narraciones Vascas» (2 liburua, 1934); Altadillen «Castillos medievales de Navarra» (2 liburua, 1934); «Historia de la Monja Alférez Catalina de Erauso» (1934); Domingo Agirrereren «Garoa» (1935); «Narraciones Vascas» (III. liburua, 1935); Thalamas Labandibarren «Aspectos de la vida profesional vasca» (1935); «Elerti» (1935); J. de Urkinaren (Ariztimuño) «La Democracia en Euzkadi» (1935); Manuel Lekuonaren «Literatura Oral euskérica» (1936); Campiónen «El genio de Navarra» (1936); Campiónen «Don García Almoravid» (1936) eta Altadillen «Castillos

¹ Nire *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a a la Cultura Vasca (1918-1936)*, 1983, oker eman nuen data. Errakuntzaz 1932 ezarri nuen.

medievales de Navarra» (III. liburua, 1936). Zuberoako Foruaren argitalpen bat, gaztelera-zko itzulpenaz hornitua, moldiztegitratua zegoen, osorik aterea ez bazen ere, gerra hasi zenean.

Alabaina, Estornésen proiekturik handienak literatura bilduma soil baten mugak gainditzen ditu. Hilabete haietako prospektu batek gero, urte asko iragan eta, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* izango zenaren berri ematen du. 1935-1936 bitartean, Estornésék entziklopedia horren lerro nagusiak marrazten ditu. Lankideak garaiko euskal mugimenduko prestatuenean artean biltzen ditu: Aranzadi, Ariztimuño, Azkue, Barandiaran, A. Donostia, Echegaray, Garate, Irigaray, Campiñón, Lafitte, Lekuona, Orixé, Veyrin, etab. Gerra zela eta, prospektua ez zen zabaldu, baina gure egunotan ere hor dauden ale batzuek proiektu haren testigantza esanguratsua ematen digute.

4. GERRA ETA LEHEN ERBESTEA

Gerra zibilak Donostian finkaturik harrapatzen ditu Estornés eta haren anaia batzuk. Uztailaren 18tik 19ra bere akademian EAJko buruzagiak hartuko ditu, Manuel de Irujok eta Jose Mari Lasartek Errepublikarekiko atxikimendua adierazi ondoren, altxamendu militarren aurrean alderdiaren jarrera ofiziala eztabaidatzeko. Bertan dago kaleko borroken lehen momentuetan eta Gasteizi laguntza ekartzeko xedean kolumna bat osatzen denean, bai eta Loiolako militarrek hiria hartzeko egiten duten irtenaldian, haien erretiradan eta setioaren garaian. Bitartean, sorterrian, Izaban, falangistak Estornés anaien bila dabilta, uste izatekoak diren asmoekin. Hiria Errepublikaren aurka altxaturikoen eskuetan erori baino egun batzuk lehenago, itsu dagoen eta ia ehun urte dituen Campiñón bisitatzen du eta hark matxinadak eragiten dion ikara eta haren kondena adierazten dio. Berriki alargunduriko emakume bat eta Campiñónen familiako zenbait pertsona dira elkarrizketa haren lekukoak. Iloba kuttunenetariko bi (Campiñónék ez zuen haurrik) Loiolako kuarteletan errendatu diren militarren artean daude. Irailaren 13an nafar soldaduak Donostian sartzen dira. 14an, «Diario de Navarra» delakoak Campiñónék Junta Nacional de Burgos-koari dion atxikimendua argitaratzen du. Nori sinetsi?

Bizkitartean, Estornés Lasa familia Zarautzen dago, «militarada» noiz baretuko zain. Askoren ustetan, beste pronuntziamentu bat da,

gehienez ere, Primo de Riveraren kolpearen antzeko zerbait. Irailaren 8an Bernardo Donibane-Lohizunera aldatzen da, aldean daramana eta 20-30 egunerako dirua daukala eta Ramón Laborda, Ignacio Barriola, Poxpoliñen ikuskariaren sortzailea, Pío Montoya eta beste zenbait lagun dituela. Donibanen. Erbesteratu asko bertaratu dira jadanik. Donostia erori eta beste egun batzuk geroago, Mariano eta Alfonso Estornés anaiak azaltzen dira. Beste anaiak, Josek, gerran esku hartuko zuen 1939 arte. Biarnoko lehengusina batek Billére-ko bere etxera eramaten ditu iheslariak, Pabe ondora. Bertan Liburutegi on bat da eta...

Europar ere, alabaina, panorama goibeldu egiten da. 1937ko neguan agintariak hiru anaiak, Alfonso, Mariano eta Bernardo, Frantziako Iparraldera eramaten dituzte, Lille-ra. Hiri hartako Unibertsitate Liburutegi bikainak material anitz eskaintzen du; Estornésék, astia sobran, sakela hutsik, ez du aukera alferrik galduko: Compte, Bergson, Kant, Brunhes eta Martonne geografoak, Entziklopedia handiak, H. Délaçroix, etab.

1938ko hasieran itzulera gauza iritsiezina iruditzen zaie. Le Havre-ra doaz Ameriketara joateko asmoarekin eta, nora jo ez dakitela, Pabera itzultzen dira berriro. *Anschluss* delakoak eta Munich-eko Itunak ez dute zalantzarako zirritu handirik uzten. Bartzelona erori ondoren, 1939an, José Estornés anaia elkartu zitzairen: Santoñan errendaturiko gudarien komandantea, heriotzera kondenatua, trukatua eta Katalunian borrokalaria izana, kontzentrazio esparru batetik zetorren. Martxoan, Alemaniako gudarosteek Txekoslovakia hartu zuten, irailean Polonia. Gerra orokorrera gero eta azkarrago bideratzen zen kontinente batetik atera beharra zegoen ahalbait lasterren. Frantzian ezinezkoa zen toki batetik bestera joatea, oso mugatua zegoen noragiri berezi batekin ez bazen. Ekialdetik datozen erbesteratu jende oste handiek Europatik ihes egin nahi dute. Anaien taldea bereizten da, noragiriak lortzeko eta bidaiarako txartelak ordaintzeko ahalbideak gero eta zailagoak diren heinean.

Estornés eta emaztea, Ignacia Zubizarreta, honek Gipuzkoatik ateratzeko modua eginik, berriki ezkondu direlarik, gorabehera sinesgaitzen ondoren eta erbesteratuen laguntzarako batzorde batzuen laguntzaz, Marseillan itsasoratzen dira Txilera bidean. 1940ko urtarrilean Santiagora iristen dira, ekipaia motza aldean, horren parte bat Azkueren Hiztegiako bi liburuek hartzen dutela...

5. AMERIKETAKO ERBESTEA

Lehen hilabeteetan txiletarrek erbesteratuentzat emandako laguntzatik bizi dira; Pedro Aguirre Cerda jauna da Errepublikako Lehendakari, abokatu eta unibertsitate irakaslea, errepublikaren aldekoa, gizon maitakorra eta euskal jatorrikoa. Beren norabidea aurkitzen saiatzen diren bitartean, lurrin-produktuak prestatzeko laborategi bat muntatzen dute etxean bertan (besterik ezean, premiaren premia Parisen aurkitu ezusteko «bokazioa»). Hasiera zailak, nahiz eta zailagoak ere izan zitezkeen Bizkaiko Eako Victoriano García Atxabalen zorioneko laguntzarik gabe, iheslari ostearen babesle eskuzabala izan zen Centro Vasco-ko kide hura. Mariano, anaia bereiziezina, Santo Domingotik etorri zen otsailean. Azaroan lehen alaba sortzen da, paper hauek idazten ari den hau.

1941ean Estornés Txileko euskaldunen organoa den «Batasuna» aldizkaria argitaratzen hasten da; 1943an politikoagoa den beste batek, «Euzkadi» izenekoak, ordezkatua dena, nahiz eta azken honetan ere esku hartzen duen. Ekonomia estuasun premiatsuen giroa urruntzen den heinean, ezarian-ezarian, ikasteko eta ikertzeko ahalbidea agertzen da berriro. Santiagoko Biblioteca Nacionalak bere ateak irekitzen ditu zabalkiro. Bizi beharra dago, ordea; 1946an kristala erreziklatzeko industria antolatzen du eta hori izango da familiaren funtsezko egitekoa Euskal Herri deitoratu hartara itzuli artean. Ondoko urtean lehen semea, Garikoitz, sortzen da. Bitartean, Estornések euskal liburutegi bat berrosatu du 1936an galdutakoa ordezkatzeko; Santiago de Chilen ere Caro Baroja, Gallop, Moret, Bosch eta enpareuen obrak aurki baitaitezke.

1952an, Itziar, bigarren alaba jaio ondoren, bere Estética Vasca argitaratzen du, Andrés M^a de Irujo eta Isaac López Mendizabalek zuzentzen duten «Ekin» euskal-argentinarr argitaletxean. Irakurketa zabal eta ikerketa urteak dira horiek: Bloch, Bernheim, Brodrick, Lantier, Dunn, Dobzhansky, Saussure, Bally, Vossler, Sapir, etab. 1956an txosten bat bidaltzen du Parisen egiten den I. Munduko Euskal Kongresura.

1958an Estornés-Zubizarreta familia, Mariano Estornés osabarekin batera, Valparaísoan itsasoratzen da azkenik Europara bidean. Buenos Airesen geratzen dira Estornésen bigarren obraren orijinalak, 1959an «Ekin» argitaletxeak argitaratzen duena: *Eneko Arista, fundador del Reino de Pamplona, y su época.*

6. EUSKAL HERRIRAKO ITZULIA

Berriro Donostian finkaturik, Estornéseek Txiletik bidaliarazten du bere liburutegia, itzulera ahalik eta gutxien nabarmentzeagatik. Argitaletxe bat berriro antolatzea, horra erbestean denbora luzean amesturiko ideia. Kapitula txikia da, gastuak ezinbestekoak izan beharko, politika giroa labankorra da eta moldiztegiako letrekin zerikusia duenak susmo txarrak sortarazten ditu.

Estatuaren bizitzaren aldi berri baten aurrean gaude: estabilizazioa, teknokrazia, Francok hautaturiko gobernu-taldearen aldaketa (Opus Deiko lehen ministroak). 1958ko maiatzean, Ley de Principios Fundamentales del Movimiento delakoa aldarrikatzen dute. Euskal Herrian, zenbait errefuxiatu itzultzen hasten dira —Segundo Olaeta, Barandiaran—; euskara berragertzen da, herabe, zenbait irratsaio eta argitalpenetan (Egan, Kulixka Sorta, Zeruko Argia, Jakin), Elvira Zipitriaren isilpeko ikastolan, musikaren alorrean (Enarak, Soroak, N. Etxanizen kantak), Euskaltzaindia berpizten da neke handitan, Tovar euskal ikasketak ostrazismotik ateratzen saiatzen da, Caro Barojak bi titulu garrantzitsu argitaratzen ditu. «Euskal liburua», ordea, tabu da oraino.

Estornes berriro jartzen da harremanetan gelditzen diren lagunekin: Francisco Unzurrunzaga, «Itxaropena» moldiztegi eta argitaletxekoa; Jose de Arteche eta Fausto Arocena, Aldundiko bibliotekariak; Jesús Elósegui; Jiménez de Aberásturi, liburu-saltzailea; Eustasio Arrue, Eusko Ikaskuntzako langile ohia; José Lecároz «El Día» egunkariko zuzendari ohia; Eusko Ikaskuntzako ikasle-bazkide izana zen Julio Caro Baroja. Adiskide berriak ere egiten ditu: Nemesio Etxaniz, Arbelaiz liburu saltzailea, Koldo Mitxelena hizkuntzalaria, José María Iribarren nafar idazlea, A. Berriotxo, Juanito San Martín, Isidoro de Fagoaga, Miguel Pelay, A. Antonio Zavala, Gaizka Barandiaran, Juan Garmendia Larrañaga, Federico de Zavala, Luis Peña Basurto eta Peña Santiago haren semea, Nestor Basterrechea eskultorea, Oteiza eskultorea ere aurkeztuko diona. Lagun horietako batek harremanetan jartzen ditu bi anaiak Angel Cruz Jacarekin eta «Academia Errante-Akademia Ibiltaria» delakoarekin, halako tertulia klandestino modukoa, 50. etako azken urteetan eta ondoko hamarraldiko lehenetan Errejimenaren aurka zegoen jendea bildu zuena, jatorriz eta izaeraz guztiz desberdina zen jendea, hala nola Martín Santos, Busca Isusi, Valle Lersundi, Mitxelena, Uria, Ayestarán edo Reyes Corcóstegui.

Caudilloren uda-hiria zen Donostia eta Falangek itxia eta kontrolatua zuen sotogain batean, 22 urte iraganik, Estornésesek kontu handiz ateratzen du lurpetik gerra aurreko argialetxe zaharren fondoetako zati handi bat. Adiskideek eta familiak —baita etxeko atezainak ere— ongi ezkutatua zuten gordailua.

1958. urte hartan Colección Auñamendi izenaz hasi zen liburuak argitaratzen, 1962 arte Itxaropenaren lege-babesarekin, zeren eta, bestela egitera, gisa horretako ezein ekimenez gaindiezinezko trabak aurkituko baitzituen administrazioaren aldetik. Lehen harpidetzen gestioa etxean berean egin zuen, egiteko hartan Itxaropena, «Aranzadi» taldea, Euskal Herriaren Adiskideak eta gerra aurreko zerrenda berreskuratuak lagun zituelarik. Egun bakarrean 70 harpidetza iristeak, egoeraren baldintzak gorabehera, txingarrak bazirela erakusten zuen: berpiztu beharra zegoen.

Liburuek arrisku txarreko gobernu zentsura jasaten dute, baina Estornésesek, asmamena erabiliz, hura saihestea lortzen du bi prozeduraren bidez: 1. Autozentsura eta ale gutxi konposatzea, zentsoreen ezaba marrak eta oharrak gertatuz gero aise bota litezkeenak. 2. Orijinalak edota liburuak Madrilera zuzenki bidaltzea, Luis Madariaga euskaldunak zuen agentziaren bidez eta, modu horretara, Delegación de Guipúzcoa minberakorretik pasatzeari itzuriz, Donostiakoa Ministerio de Información y Turismo haren pean zegoen Dirección General de Información delakoa baino askoz zorrotzagoa baitzen. Baimenak oraindik Ministerio de Gobernación deiturikoak 1939ko uztailaren 15ean emandako aginduaren arabera banatzen dira.

Lehen zenbakia haren anaia Marianok idatzi duen «Oro del Ezka» erronkariar giroko eleberriri dagokio, handik gutxira berriro argitaratzen dena. Estalpeko Argialetxearen bigarren alea, Bernardo Estornésen obra paradigmaticoenetako baten lehen liburukia da, *Origenes de los Vascos* (1959) izenburukoa; beraren ondoko aleak mugarriak izango ziren euskal ikaskuntzen eremu mugatu hartan, benetako argitalpen arrakastatsua gertatuz. Urte berean, 1959, beste bat ematen du argitara: *El ducado de Vasconia*. Argialetxeak gerra aurreko autoren produkzioa biltzen du (Urquijo, Arocena, Barandiaran, Labayen), eta haiekin batera berriak ere bai, hala nola Mitxelena, Arbeloa, Juan Garmendia, etab.

Estornés anaiek, orobat, inor ateratzera ausartzen ez zen «Academia Errante» haren produkzio interesgarri eta ez konformistaren produkzioa argitaratzen dute.

1963. urteak mugarri bat ezartzen du Argialetxean; Estornésekin eta Jorge de Oteizak elkar hartzen dute eta, Auñamendiko «Colección Azkue» delakoan, gazteriaren zati garrantzitsu batengan eragin gaitza eta ordenako pertsona askoren artean eskandalu handia piztu behar zuen liburu bat azaltzen da: *Quosque tandem...!* Oteiza urte haietako euskal mutazio estetiko eta intelektualaren apostolua izango da, kultur sustrai arketipikoak abangoardiarekiko harremanetan jartzen dituen gogapen guztiz bereziaren bidez: «Atzeraka idazten dut. Aurrera begiratzen dut, baina atzerako noa». «Atzeraka aurrera jotze» suhar (eta kontraesankor) hori gerra ondoko belaunaldi nazionalistak (edo kidekoak) espero zuena da. Kontrolik gabeko hirigintza, bigarren industrializazioa, inmigrazioa, anomia dira garai haietako ezaugarriak, Guerra Garridok ongi jaso dituenak. Celaya, Otero, Figuera, Martín Santos aipatuak dira, baita lehenengo ETA, Labéguerie, Munich-eko «elkarkeria», Krutwig, Rikardo Arregi, Grimau kasua, Aresti. Gernika «Aberri Eguna» prestatzen ari da.

1965eko urriaren eta azaroaren artean egin zen Durangoko I. Liburu eta Disko Azoka beste mugarri bat izan zen, bertan esku hartu zuen Auñamendik Euskal Herriko Argialetxe nagusi gisa.

1966an Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatzen du Estornés, nahiz eta erretzen ari den euskara batuan H letra erabiltzearen aurkako erabakia den erronkariarra. Buenos Airesko Instituto Americano de Estudios Vascos elkarteak beste horrenbeste egiten du.

Gerra aurretik hausnarturiko ideia den *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* obraren prestaketa lanak burutzen ari dira ardura eta kontu handiz. Marianok eta Bernardok astialdi guztiak herrialdea zeharkatzeko erabiltzen dituzte, hala Frantzia aldekoa nola Espainiakoa, oroitzen eta harremanak berpizten dituztela, aldaketez ohartzuz eta txoko ezkutuenak ere argazkian jasotzeko aprobetxatuz. Estornésekin hiru atal handitan berezia ikusten du obra hori: Diccionario Enciclopédico Vasco, Enciclopedia Sistemática, Bibliografía General Vasca. Azken atal hau EEBBetako erbestetik itzuli berri den Jon Bilbao Nevadako (Reno) Unibertsitateko irakaslea lantzen ari da jadanik. «Eusko-Bibliographia» hori ohi ez bezalako bost hizkuntzako gidaz hornitua izango da bere sarreretan: euskara, gaztelera, ingeleza, frantsesa eta alemana.

60.eko azken urteak, ordea, ikaraldiz gainezka beterikoak izango ziren. Abertzaletasuna indar handiz errotu da euskal gazteriaren

zenbait sektoretan; Diktaduraren aurkako indarrezko erantzunak gazte horietariko batzuk erakartzen ditu. Unibertsitatea «mugitzen» da, Errejimena hala-holako irekiera abiarazten du. 1966an Manuel Fragaren Ley de Prensa e Imprenta izenekoa onartzen da; haren aplikazioak, gorabehera askorekin, aurrerapena dakar adierazpen askatasunaren alorrean. Hala eta guztiz, gobernu-agindu batek beste murriztapen batzuk ezartzen ditu 1968an; «tokiko» izaera duten obrek Delegación Provincial-etik pasa beharko dute non funtzionarioek, «tokikoak» berauek ere, ongi baino hobeto dakiten nor den nor eta zer egiten duen bakoitzak. Auñamendi, Estatuko gainerako Argialetxeekin batera, Madrilera deitzen dute; bertan Robles Piquer-ek agiraka egiten die.

Zorionez, asmamenak eta Euskal Herriko probintzia-egiturak elkarrekin jokatu dute irtenbide bat moldatzeko. Delegación hori *Gipuzkoako*à denez, eta proiektaturiko argitalpenik bat ere — Enciclopedia barne— probintzia mailako (tokiko) gaiez soilki ari ez zenez, baizik eta «euskal» gaiez, Estornéseek berriro Madrilan aurkezten ditu bere proiektuak. Dena jokoan jartzen duen artegatasun egunak dira. Abuztuaren 2an Melitón Manzanos hiltzen dute Irunen; Salbuespen Egoera direlakoak hasten dira eta 1969ko urtarrilean Estatu osoaren lurraldea hartzen dute.

Enciclopedia-ren lehen alean, *Literatura* gaia duena eta Estornés beraren obra dena, zentsurak zenbait alderdi zuzendu eta beste zenbait ezabatzen ditu, haien artean Foruen eta Iparragirreran aipamenak. Edizioa erretiratuz gero, galerak handiak lirateke. Irtenbidea testu zentsuratuen gainean zenbait zati urreztatu inprimatzea da, horiek desagertzen dira ondoko edizioetan.

5 liburuki (1969, 1970, 1973, 1974 eta 1981) hartuko zituen Literatura hori, Mitxelenak (1960) eta Villasantek (1961) egindakoen ondoren dator, baina Oteizak Estornési ohartarazitako («beti ere ez dakit nola idazten duten euskaldunek») arazo handia zuzenduz: jasotako autore bakoitzaren testu anitzen ondoan gaztelerazko itzulpena ematen da, aditu batek, «Gaztelu» poetak, burutua.

Harez gero, liburuki berri bakoitzak bere historia berezia du, egunen batean ezagutaraziko dena. *Diccionario Castellano-Euskera* izenburuko hiztegiak araubide ahaltsu emango dio obrari euskal hizkuntzari dagokionez. 70.eko urteetan, Unibertsitate bat bertan finkatzeak, Euskal Herriko Unibertsitatea, haren artikuluetariko askoren idazketa erraztuko du.

Halaber, 60.eko urteen amaiera aldean, Estornésesek, olerki-zaletasun handi eta poesia liburutegi txukun baten jabe denak, lehen saioak egiten ditu literatura jenero horretan eta Zangotzako Lore Jokoetako lehen saria irabazten du 1967 eta 1968. urteetan. 1978an erdaraz, haren euskarazko itzulpenaz lagundurik, bere *Cantar de Roncesvalles* argitaratzen du, *Cuentos roncaleses, poemas y otras cosas navarras* 1980an eta *El Cantar de Kixmi* 1981ean. Liburu horietariko bigarreanean, Erronkarin emandako haurtzaroko gertakariak biltzen dira, bere haur belarrietara iritsi bezalaxe.

7. HAUTESKUNDEAK BERRIRO!

Trantsizio politikoak (1975-1977) lasaialdia dakar berarekin, arian-arian egin beharreko tramite gogaikarriak eta administrazioaren ezkutuko segadak desagertzen baitira. Politika irakinaldiak, ordea, ustekabeko txar bat baino gehiago eragiten du, mehatxuak eta dei anonimoak jasotzen baitituzte gerra garaitik bereturiko postuak behinbetiko uztera etsitzen ez dutenen aldetik. Estornésesek egoera zail hartan antolaturiko alarma sistema bat ere badago oraindik Argialetxe zaharreko bazterren batean.

Bestalde, Autonomiaren etorrerak ez du ia zeresanik argialetxearen bizitzan.

Dezepzioek, ordea, jo egiten dute (samintzen dute) baina ez dute geldiarazten idazle zahar saiatu honen lan ordutegi zurruna. Beste ekarpen nagusi bat: *Historia General de Euskalerrria*, sei liburutan, erromatarren, baskoien eta iruindarren garaia hartzen dutena, K.a. 221. urtetik 1234.era. Enciclopedia Auñamendiko gorputz sistematikoaren barne argitaratzen dira 1981etik 1989ra, Estornésesek ongi kontserbaturiko 82 urte dituelarik jadanik.

1983an Gipuzkoako Aldundiko ganbaretan Eusko Ikaskuntzaren Artxiboaren aurkikundea zorioneko ustekabea izan zen, harekin batera, Estornésesek gerra aurreko pertsona gailenekin gurutzaturiko gutuneria azaldu zelarik. Eusko Ikaskuntza 1978an berpiztu zen Oñatin zenbait pertsona gailenek eta lehengo bazkide batzuek, hala nola Agustín Zumalabe, Angel Irigaray, Joaquín Yrizar eta bestek, eginiko gestioen ondorioz.

Etnología y Sociología de los Vascos (1984) izenburuko obra Estornésen interesguneen aniztasunaren beste adierazgarri bat da;

bertan zientzien sistema bat garatzen du, hizkuntzan eta zenbait pentsalariri buruz —Zubiri, Ferrater Mora, Sorokim, Howking, etab.— egindako azterketan oinarritua. 1990ean RIEV aldizkarian agertu den Sistema de las Ciencias idazlana bere kontzepzio epistemologikoaren beste lagin bat da.

Adinak ez du mendearen lekuko honen iharduera moteldu ez eta, batez ere, jakinmin intelektuala murriztu; zenbait lan orijinal argitaragabe ditu (soziologia, eleberria, euskara ikasbide kantatua, Nafarroari buruzko monografia, prosa poetikoa, etab.) eta beste zenbait orijinal lantzen ari da. 1994an, hainbat estilotan moldaturiko berrehun poema biltzen duen *Canto y cantares de Euskalerría* agertu da.

1992an Eusko Ikaskuntzak, aspaldiko Elkartea eta Estornésen kuttunena, «Manuel Lekuona» Saria ematen dio Gipuzkoako Aldundiko Trono Aretoan. Horrelako kasuetan gertatzen denez, omenaldiak ugaritu egiten dira. Ondoko urtean, aurrekoaren jume den Euskaltzaindiak Ohorezko Euskaltzain izendatzen du; Durangoko Azokak ekitaldi publiko bat eskaintzen du eta berpizturiko Akademia Ibiltariak plaka bat ematen dio.

Oharra

Aitarene bizitzaren laburpen hau idazterakoan, berriki idatzi duen *Memorias* (1995) izan dut oinarri. Oroitzapen horiek bere ibilbide intelektualaren berri ematen dute baina baita ere, beste askoren antzera, anekdota eta familia barneko xehetasun pila biltzen dute; azken horiek ez ditut jaso Eusko Ikaskuntzak agindu didanetik kanpo geratzen direlakoan. Halaber, ez zait bidezkoa iruditu haren produkzio literario eta historikoari buruzko iritzirik ematea.

(Itzulpena: Luis Manterola)





Semblanza biográfica


En las *Memorias* de Bernardo Estornés subtituladas «Recuerdos y andanzas de casi un siglo» se traza, con estilo más que personal, la trayectoria vital del patriarca de los Estornés Lasa.

También la de más de un navarro medio que, nacido en la primera década del siglo, acabó afincándose en Gipuzkoa, donde tantos apellidos de origen toponímico delatan a las claras su procedencia. Gipuzkoa, particularmente Donostia, como foco de atracción de una Navarra de demografía excedentaria. Gipuzkoa, como la Modernidad al alcance de la mano para una Navarra que comienza a sacudirse, a duras penas, los celajes del s. XIX.

1. LA NIÑEZ DE UN RONCALÉS

Bernardo Estornés nace en un recóndito y nevado pueblecito del Pirineo navarro, en 1907. Reina en la España de Costa y los noventayochistas, desde 1902, Alfonso XIII. En Francia la división incendiaria del affaire Dreyfus se halla en su cenit; la laicidad radical se acerca a la frontera mediante su avance en Bayona. En Bizkaia se alzan, altivos, los Altos Hornos de Chávarris e Ybarras. Los mineros reivindican condiciones humanas de vida. Los *bizkaitarras* dan qué hablar, allá por Bilbao y algo por San Sebastián. No hace mucho que una vía férrea comunica ambas capitales. Mucho más alboroto suscitan los mitines clericales y anticlericales y la Ley de Asociaciones (Ley del Candado) que aproxima a republicanos y socialistas, reagrupa a los católicos y destruye a la Liga Autonomista.

Todo ello repercute, por supuesto en Navarra, en especial en la Pamplona de D. Joaquín Viñas, alcalde de la misma entre 1902-1907 y 1909-1913, gran amigo de Canalejas (el político más admirado por



el padre de nuestro biografiado), y adalid de las ideas progresistas en el ex reino. Una Navarra en la que bulle ya la inquietud de unos pocos por traer renovación (agua, luz, saneamiento, comunicaciones, capitales, maquinaria, abonos, cultivos intensivos, etc.) a cada uno de sus rincones. Y en la que grupos de desposeídos, allá por la Ribera e importantes áreas de Estella y Tafalla, reivindican sus derechos al disfrute de la tierra.

En esta Navarra, dormida pero recorrida por los primeros signos de la Modernidad, en esta Navarra en la que el clero es fundamental (Flamarique crea el cooperativismo agrario, el capuchino Evangelista de Ibero publica el *Ami Vasco*, párrocos y coadjutores organizan las conciencias desde los confesionarios), el pequeño vallecito roncalés apenas acaba de abrirse al resto de Navarra, merced a una carretera, cuando Bernardo Estornés hace acto de presencia en el mundo. Un arriscado camino montañoso comunica con el Bearne, con Francia. Es Isaba —hoy lo sabe todo vasco que alguna vez haya recalado en él en verano— el último de los siete pueblecitos que constituyen el valle. Puede que también fuera el último rinconcillo al que las noticias llegaran en 1907 y antes, pero, al final llegaban.

Como aquella modesta carta, procedente de Guanajato, que, tras atravesar los océanos durante muchas semanas, comunicó a algún Lasa de Isaba, en el siglo XIX, que un pariente lejano había dejado a la familia un pellizco de su fortuna, origen de «la tienda» de la madre y tías de Bernardo, universo gnoseológico primario de este niño, como sólo puede serlo una tienda de pueblo recóndito (de las que ya no quedan) en la que hay de todo, desde telas a granos, piensos, relojes, aperos, mapas, fuegos artificiales, vituallas, especias, ajuar doméstico, calzado, etc. Son noticias tangibles de un mundo exterior; etiquetas e instrucciones dan cuenta de su fabulosa procedencia en lenguas diversas.

Su niñez transcurre entre la «tienda» y la escuela local, el larguísimo invierno pirenaico hecho de nevadas implacables y ventiscas, historias de lobos hambrientos que llegaron a arrebatar a niños desprevenidos, relatos de humanos perdidos en la nieve, consejas, juegos infantiles viejos como el mundo, últimos jirones del euskera local (variedad roncalesa) desarraigado por la escuela, la iglesia y la transhumancia invernal de los pastores roncaleses a la Ribera de Navarra. Desaparecían los «bascongados», nombre con el que, ya desde el Fuero General del siglo XIII, se ha designado en el

país a los vascoparlantes. La escuela da a conocer unos pocos libros escolares, de autores levantinos, respetuosos con la diversidad regional. La literatura infantil, que llega de la mano del tendero Estornés —Croce, Salgari, Verne, Calleja—, causa sensación y corre de mano en mano.

Pero el aislamiento es relativo. En casa se lee prensa progresista —«El Pueblo Navarro», «El Sol»— y revistas como «El Blanco y Negro», «La Esfera» y el satírico «España», que pone en solfa al clero y es hecho desaparecer por el clan femenino de los Lasa. Como telón de fondo, la ruptura de las relaciones diplomáticas del Vaticano con España, el asesinato de Canalejas.

Un episodio importante fue la Gran Guerra durante la cual los vecinos del otro lado de la vertiente, suletinos y bernesés, acudieron en masa a avituallarse y algunos de ellos aprovecharon para desertar y quedarse. El padre de Estornés, aliadófilo empedernido, lee en voz alta los partes de guerra. Otro suceso fue la llegada de un sacerdote joven que fundó una cooperativa de abastecimiento y puso en serios aprietos a «la tienda» y algún que otro establecimiento de venta al por menor. Parte de los varones del pueblo dejó de ir a misa. Un tercer episodio aún más trascendente: el arrinconamiento de la diligencia de caballos y el nacimiento del motorizado «Progreso Roncalés» (1914), que pondría en contacto al valle con Pamplona y San Sebastián. El matrimonio Estornés-Lasa visitó Donostia y quedó prendado.

2. LA ESTANCIA EN ZARAGOZA

Año 1922; pasada la euforia económica, el país se enfrenta con la crisis económica, a la que responde la patronal con rebajas de salarios y el trabajador fabril con huelgas. La inquietud creada por los nacionalismos vasco y catalán, el pistolero y la cuestión africana enconan la inestabilidad política que desembocará en la llegada al poder del general Primo de Rivera.

Esos años los vivirá Estornés en Zaragoza; un estudiante navarro más en el distrito universitario aragonés que acoge, a falta de Universidad propia, a tantos de ellos. Como aún era costumbre en la sociedad tradicional, los hermanos Mariano y Bernardo, van con un familiar, tía en este caso, y a la pensión que regenta una roncalesa.

La Escuela Superior de Comercio de Zaragoza representa un cambio total: estudios reglados, amistades, alumnado mixto. La calle ofrece el espectáculo variopinto de maños y vendedores callejeros, el paseo, las ferias, el cinematógrafo, la vida de una urbe jovial. La avanzada engrosa con la llegada del resto de la familia tras la venta de la tienda de Isaba en 1924 y la compra de otra, céntrica, en la capital aragonesa.

